

**ZIRKULARRA, 2018KO AZAROAREN 28KOA, FUNTZIO PUBLIKOAREN
SAILBURUORDEARENA, C1, C2 ETA E TALDEETAKO LANPOSTUEN
LEHIAKETEN EBAZPENARI BURUZKOA.**

Zirkular honen helburua da langileek lehiaketetan esleitutako lanpostuak jabetzan hartu aurretik hartu beharreko neurri guztiak arautzea eta haien berri ematea, lanpostuak jabetzan hartzeak ahalik eta eragin txikiena izan dezan ematen diren zerbitzuetan.

Zirkular honen bidez, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak (FPZ) eta Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren sailtako eta haren erakunde autonomoetako zerbitzu-zuzendaritzek (ZZ) batera edo banaka egin behar dituzten jarduerak zehazten dira, zeinak lehiaketaren ondoriozko lanpostuen jabetza-hartzeen eraginpeko langileak dauzkaten guztiek egin beharko baitituzte.

Hauek dira neurri horien guztien helburuak:

a. Behin lehiaketa ebatzita bete gabe geratzen diren lanpostuak 2019ko otsailaren 1ean beteta egon daitezela lortzea. Horretarako, lehiaketako lanpostuak jabetzan hartu aurretik birkokatze-prozesu bat egingo da.

b. Funtzionarioen mugikortasun-aukerak areagotzea, eta sail desberdinek kudeatutako zerbitzu-eginkizun ugari ebatzi beharrak dakartzan arazoak saihestea. Zerbitzu-eginkizunen ohiz kanpoko deialdi bateratua egiteak aukera ematen du funtzionarioei lanpostuak beren merezimenduen eta lehenetsuen arabera esleitzeko.

Hurrengo artikuluek antolatzen dituzte lanpostuak jabetzan hartu arte bete beharreko prozesuak, azaltzen dute zer neurri hartu behar dituen Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak lanpostuak jabetzan hartzearen ondorioz sortzen diren dokumentuak bideratzeko, eta, halaber, arautzen dute zer bide egin behar duten dokumentuok Langileen Erregistrora bidali arte.

1. artikulua.- Eremu objektiboa

Zirkular honek honako gai hauek arautzen ditu, lehiaketaren ebazpenaren pean denak ere:

- Langileek lanpostuak jabetzan hartu bitarteko egutegia
- Lanpostu berrietan hasteko aukerak: izango diren aldaketei buruzko informazioa koordinatzea eta ezagutaraztea
- Behin-behineko atxikipenak
- Bitarteko langileak izendatzeko eta zerbitzu-eginkizunak esleitzeko murrizketak
- Bitarteko langileak birkokatze prozesua
- Zerbitzu-eginkizunetarako ohiz kanpoko deialdiak
- Lanpostuak jabetzan hartzeari buruzko dokumentuak prestatzea, aurkeztea eta biltzea
- Funtzioen esleipen bidezko zerbitzuak
- Lizentziak
- Aparteko ordainsariak, aparteko orduak eta euskara-eskolak

2. artikulua.- Prozesuak amaitzeko aurrez ikusitako egutegia

2018ko abenduaren 11:Lanpostuak behin betiko esleitzeko proposamenaren argitalpena

Abenduaren 17a-urtarrilaren 6a: Langileak zerbitzu-eginkizunetan sartzeko aukerak 2019ko urtarrileko 2.-3. Astea: Simulazioak

2019ko urtarrilaren 23a eta 25a: Birkokatze prozesuak

2019ko urtarrilaren 24a: Zerbitzu-eginkizunetarako ohiz kanpoko deialdia

2019ko otsailaren 1a:Lehiaketan eta birkokapenetan esleitutako lanpostuez jabetzea

2019ko apirilaren 1a:Zerbitzu-eginkizunen esleipenak

3. artikulua.- Langile esleipendunak abenduaren 17tik urtarrilaren 6ra arte zerbitzu-eginkizunetan sartzeko aukerak

Izango diren aldaketak planifikatzeko eta antolatzeko, beharrezkoa da jakitea zer egoera egongo den lanpostuak jabetzan hartu ondoren. Otsailaren leian egongo den egoeraren **simulazioari** esker, jakin ahal izango dugu **zeintzuk geratuko diren desplazatuta** eta zer **lanpostu** geldituko diren **bete gabe**, eta, horrenbestez, prozedura bat ezarri ahal izango dugu, langileak birkokatze eta zerbitzu-eginkizunak kudeatzeko. Aldaketa horiek kudeatzeko, ordea, beharrezkoa izango da jakitea zer aukeraren alde egingo duten langile esleipendunek.

Kontuan izanik zer-nolako eragina izan dezakeen beste batzuegan langileak lanpostu berrietan hasia erabakitzeak, edo, hala badagokio, aukera hori ez hartzeak, kasu horietarako aplikatu beharreko irizpide objektiboak ezarri ditugu.

Horretarako, **lehiaketan behin betiko esleipenak argitaratu ondoren, abenduaren 17tik urtarrilaren 6ra arteko epea ireki da, zerbitzu-eginkizunetan esleitutako langileek lanpostuan hasteko aukeraren berri eman dezaten lehiaketaren aplikazioan (Jakina/Enpleguaren ataria) eta INTERNETen.**

Tramite horretan eskatuko zaio argitu dezala zer egin nahi duen: orain betetzen duen lanpostuan zerbitzu-eginkizunetan jarraitu, jabetzan hartuko duen lanpostuan hasi gabe, edo, bestela, esleitu zaion lanpostuan hasi benetan lanean.

a) Esleitutako lanpostuan lanean **hasteak** esan nahi du langile esleipendunak lanpostua jabetzan hartzen duela, jabetzan hartutako lanpostu horretan hasiko dela lanean, eta ordura arte han izan den langilea desplazatu egingo duela.

Baldin eta emandako epean zerbitzu-eginkizunetan dagoen langileak ezer adierazten ez badu, orduan lanean hasia aukeratu duela ulertuko da.

Langile esleipenduna aldi baterako ezintasun-egoeran badago eta lanean hasia erabakitzen bada, lanean hasia hori berehalakoa dela ulertuko da, eta, hortaz, desplazatu egingo du ordura arte lanpostu hori bete duen langilea, baldin eta, medikuaren txostenen arabera, aurreikusitako aldi baterako ezintasun-egoera hilabete batetik beherakoa bada.

Aldi baterako ezintasun egoerak hilabete baino gehiago iraungo duela aurreikusten bada, ukitutako langileek aukeratu ahal dute plaza hori betetzen jarraitzea titularra sartu arte ala desplazatuta geratzea eta berriz kokatzeko prozesuan sartzea.

b) Langile esleipenduna **ez da** esleitutako lanpostuetan **lanean hasiko**, egoera hauetan egonez gero:

- zerbitzu-eginkizunetan, eta betiere aplikazioaren bidez adierazi badu une horretan betetzen ari den lanpostuan jarraitzea erabaki duela.
- zerbitzu berezietan edo seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentzia-aldian, baldin eta ez badu lanpostu berrian hasteko nahia azaltzen.
- amatasunagatiko edo adopzioagatiko lizentzia eta
- sindikatu-ordezkaritzagatiko lizentzia.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak urtarrilaren 7an zehar landuko ditu eta bidaliko dizkie zerbitzu-zuzendaritzari otsailaren 1erako aurreikusita dauden aldaketen simulaziotik eratorritako zerrendak.

Bestalde, simulazioaren arabera desplazatuta geratzen diren langileei egoera horren berri eman beharko diete zerbitzu-zuzendaritzek. Orobat, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari ere gertatuko diren aldaketen berri eman beharko diote, baldin eta simulazioaren emaitzak aldatzen badituzte.

4. artikulua.- Behin-behineko atxikipena duten funtzionarioak

Titulartasunpean lanposturik ez duten, zerbitzu-eginkizunetan dauden eta lehiaketan lanpostu baten esleipendun suertatu diren karrerako funtzionarioak lanean hasiko dira esleitu zaien lanpostuan.

Atxikitako langileak ez badu lanposturik eskuratu lehiaketan eta lanpostuak jabetzan hartu dituzten langileen ondorioz desplazatua bada, otsailaren 1ean bete gabe dagoen plazetako batera atxikiko da berriz ere.

Atxikipen hori egingo da, Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako karrerako funtzionarioen behin-behineko atxikipenaren prozedura arautzen duen Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2011ko ekainaren 28ko Aginduan ezarritako irizpideekin bat etorritz.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak pertsonalki emango die dagokien langileei behin-behinean esleitu den lanpostuaren berri, eta lanpostu horretara sartu beharko dira otsailaren 1ean.

5. artikulua.- C1, C2 eta E taldeetako lanpostuetako zerbitzu-eginkizunak eta bitartekoen izendapenak ukitzen dituzten espedienteak murriztea

Urtarrilaren 14tik otsailaren 1era bitartean murriztu egingo dira bitartekoen izendapenak, bai lanpostu hutsak edo titularrik gabeak beteta, bai zereginak

metatuta; zerbitzu-eginkizunen espediente berrien argitalpena urtarrilaren 7tik aurrera murriztuko da.

Neurri honen helburua da bitarteko langileak izendatzeko edo zerbitzu-eginkizunak esleitzeko espedienteek ez aldaraztea langileak postu berrietan kokatzeko edo zerbitzu-eginkizunetarako ohiz kanpoko prozesuaren antolamendua (eskaintzen diren postuak eta lan-poltsetako partaideak).

6. artikulua.- Zerbitzu-zuzendaritzaren jarduketak

Urtarrilaren 7tik aurrera, zerbitzu-zuzendaritzek honako hau egin beharko dute:

- Lanpostuaz jabetzearen ondoriozko mugimenduen, poltsetara desplazatutako langileen eta bete gabeko lanpostuen zerrendan berrikusi.
- Lehiaketaren ebazpenaren ondoriozko aldaketek ukitu dituzten langileei euren egoera jakinaraztea.

Urtarrilaren 11n, gehienez, zerbitzu-zuzendaritzek honako hau egin beharko dute:

- Bitarteko langileen izendapenen amaierak berrikusi. Izan ere, poltsetan ez bada amaiera-data jasotzen, langile horiek ezin dute parte hartu langileak postu berrietan kokatzeko prozesuan.
- Ordezkapenak edo pilatzen diren zereginak egiteko bitarteko langileen izendapenak berrikusi, izendapena luzatu behar dutenei aldi horretan deirik egin ez dakien amaiera-data grabatuta edukitzeagatik.
- 2019ko urtarrilaren 7a baino lehen argitaratutako zerbitzu-eginkizunen espedienteak esleitu eta langile esleipendunen izena Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari jakinarazi.
- Izendapen guztien eta horien luzapenen amaiera-datak Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari jakinarazi.

Urtarrilaren 17an, gehienez, zerbitzu-zuzendaritzek honako hau egin beharko dute:

Bitarteko langileak izendatzeko espedienteak tramitatu, bete gabe dauden lanpostu guztiak estaltzeko, baldin eta, araudiaren arabera, poltsen bidezko bitarteko izendapena eduki badezakete eta horien iraupena 6 hilabetetik gorakoa izango dela aurreikusten bada.

Espediente horiek aplikazioaren bidez sartuko dira Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan, gehienez ere urtarrilaren 17an (ondoreak otsailaren 1etik aurrera).

- Zerbitzu eginkizunen ohiz kanpoko prozeduraren xede izango diren plazen berri eman Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari.

Urtarrilaren 18an, gehienez, honako hau egin beharko dute:

- Simulazioaren ondorioz bete gabe geratzen diren lanpostuen, desplazatutako pertsonen eta mugimenduen zerrendetako aldaketak amaitu.

Urtarrilaren 28-31n, gehienez, honako hau egin beharko dute

Birkokatutako langileekin harremanetan jarri, eta lanpostuaz jabetzeko lekuaren eta harremanetarako pertsonaren berri eman.

7. artikulua.- Bitarteko langileak birkokatzea

Horren helburua da azkar hautatzea sail guztietan bete gabe geratzen diren lanpostuak betetzeko langileak, betiere lan-poltsak arautzen dituen Akordioan jasotako irizpideekin bat etorritz.

GARRANTZITSUA:

1. Lan-poltsatako pertsonak eguneratuta eduki behar dituzte beren prestutasunari eta mugei buruzko datuak, 2019ko urtarrilaren 18an. Urtarrilaren 18tik otsailaren 1era bitartean ezin izango da aldaketarik egin.

2.- Prozedura hau amaitutakoan laguntzailearen kidegoan lanposturik geratuko balitz esleitu gabe, ohiz kanpoko kudeaketa-prozesu bat garatuko litzateke, 7.1. puntuan adierazitakoaren berbera, lanpostu horien gaineko interesa duten administrarien kidegoko lan-poltsako kideen artean.

Horretarako, interesa duten administrarien kidegoko lan-poltsako langileak harremanetan jarri ahal izango dira Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarekin honako helbide honetan, eta prestutasunari eta mugei, telefono mugikorraren zenbakiari eta harremanetarako posta elektronikoko helbideari buruzko datuak adierazi urtarrilaren 17a baino lehen:

provision-seleccion@euskadi.eus

EGUTEGIA

- Urtarrilaren 15a: Birkokapen lanpostuak eta parte-hartzaileak argitaratzea.
- Urtarrilaren 17a: Poltsatako langileek datuak eguneratzeko epea amaitzea.
- Urtarrilaren 21a: Birkokapeneko parte-hartzaileei SMSa bidaltzea: laguntzaileen eta mendekoen poltsatako langileentzat: deitutako plazak.
- Urtarrilaren 23a: Ohiko birkokapen prozesua: Parte hartzeko eskaria, laguntzaileen eta mendekoen poltsatako langileentzat.
- Urtarrilaren 24a: Birkokapenaren esleipena argitaratzea.
Ohiz kanpoko kudeaketa bidezko parte-hartzaileei SMSa bidaltzea
- Urtarrilaren 25a: Aparteko birkokapen prozesua. Parte hartzeko eskaria, administrarien poltsatako langileentzat.

- Urtarrilaren 28a: Birkokapenaren esleipenak argitaratzea.
- Otsailaren 1a. Lanpostuez jabetzea.

7.1.- Hautaketa-prozedura

a) Lan-poltsetako kideak hautatzea

Premiazko prozedura bat erabiliko da; horretarako, birkokatu beharreko lanpostuak argitaratuko dira, eta lanpostu horiek poltsetako kideek eskatu ahalko dituzte lehenetsunaren hurrenkeran, intranet eta Internet bidez, 24 orduko epean.

b) Premiazko prozeduraren bitartez hautatu beharreko lanpostuak

-Otsailaren 1ean bete gabe dauden lanpostuak, hutsunearen iraupena 6 hilabetetik gorakoa izango dela aurreikusten denean.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak beharrezko lanpostuak gordeko ditu lehiaketaren ebazpenaren zioz desplazatu diren eta lanposturik eskuratu ez duten behin-behineko atxikipeneko karrerako funtzionarioak atxikitzeko, eta data horietan lanera itzultzea eskatu duten langileentzako.

Lehiaketan esleipendun izan diren pertsonak lanean hasteko aukeretan aldaketarik egiten badute edo beste gorabeheraren bat gertatzen bada (aurreikusi gabe lanean hastea kasu) eta lanpostu bat beteta badago otsailaren 1ean, prozedura horretatik ezabatuko da.

Berriz kokatu behar diren lanpostuen behin-behineko zerrenda urtarrilaren 15ean argitaratuko da.

c) Hautaketa honetan parte hartzen duten langileak

- Urtarrilaren 23an lan-poltsetan otsailaren 1eko kontratazioetarako prest agertzen diren langileak.
- Lehiaketaren ebazpenaren ondorioz desplazatuta geratzen diren aldi baterako langileak.

Birkokapenean parte har dezaketen langileen behin-behineko zerrenda urtarrilaren 15ean argitaratuko da intranetean eta www.euskadi.net/lanpoltsak helbidean.

d) Partaideek hornidurak aukeratzea

Urtarrilaren 21ean SMS bat bidaliko zaie otsailaren 1eko kontratazioetarako prest dauden lan-poltsetako kideei.

Lanpostu baten esleipendun izateko aukeraren bat dutenek bakarrik jasoko dute mezu hori (zenbat lanpostu kidegoan, hizkuntza-eskakizuna eta udalerrimugaketa).

SMS horretan azalduko zaie urtarrilaren 23an interneteko honako helbide honetara sartu beharko direla: www.euskadi.net/recolocacion-comisiones

Une horretan, birkokatze prozesuan parte hartzeko eskaria egin beharko dute, PIN baten bidez (PIN hori aurretiaz bidaliko da banan-banan langilearen postontzira urtarrilaren 8an), eta aurkezten zaizkien lanpostuak beren lehentasunen arabera ordenatu beharko dituzte.

Prestutasunean eta mugan aldaketarik egin nahi bada, urtarrilaren 17a baino lehen izan beharko da. Urtarrilaren 18tik otsailaren 1era bitartean ezin izango da aldaketarik egin.

e) Esleipenak argitaratzea

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak lan-poltsako ordenaren eta lanpostu bakoitzerako eskarian zehaztutako ordenaren arabera esleituko ditu lanpostuak, eta prozedura horren emaitza argitaratuko du.

f) Hautatutako langileekin harremanetan jartzea

Berriz kokatu beharreko lanpostuak esleitutakoan, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak datuak zerbitzu-zuzendaritzetara bidaliko ditu, azken horiek harremanetan jar daitezten aukeratutako langileekin, langileok otsailaren 1ean sartze aldera.

7.2- Ohiz kanpoko kudeaketa-prozedura:

Laguntzailearen kidegoko lan-poltsetan sartzen diren langileak berriz kokatzeko prozesua amaitutakoan lanpostuak badaude esleitu gabe, horiek otsailaren 1ean lanerako prest dauden administrariaren kidegoko lan-poltsako kideen artean eskainiko dira, baldin eta kide horiek aurretik Funtzio Publikoaren Zuzendaritzarekin harremanetan jarri badira eta lanpostu horiek betetzeko interesa dutela adierazi badute.

Urtarrilaren 24an SMS bat bidaliko zaie langile horiei, hilaren 25ean egin dezaten birkokatze-prozesuan parte hartzeko eskaria, PIN bidez, eta aurkezten zaizkien lanpostuak ordenatu ditzaten, beren lehentasunen arabera.

Lanpostu horietakoren bat beste poltsaren bateko kideren bati esleitzen bazaio, laguntzaileen kidegoan izendatzen da eta, beraz, lan-poltsa horretan sartzen da; hala, bertan birbarematuko dira bere zerbitzuak.

8. artikulua.- Ohiz kanpoko prozedura, lanpostuak jabetzan hartzearen ondoriozko zerbitzu-eginkizunak tramitatzeke

Bete gabe dauden eta 2006ko maiatzaren 30eko Aginduan ezarritakoaren arabera zerbitzu-eginkizunetan bete behar diren lanpostuak zerbitzu-eginkizunen ezohiko prozedura batean deituko dira, Funtzio Publikoaren sailburuordearen ebazpen bidez. Ebazpena urtarrilaren 24an argitaratuko da.

Pentsatzekoa da hautagai askok eskatuko dituztela lanpostu horiek eta, kasu askotan, hautagai berberak zenbait sailtako lanpostuak eskatuko dituela.

Horregatik, ohiz kanpoko tramitazio honen helburua da prozedura bat ezartzea, deialdi horiek guztiak **ahalik eta azkarren** ebazteko, **balorazio homogenea** eginez, eta funtzionarioen **lehentasunak** kontuan izango dituen aldi bereko esleipenak eginez.

Horretarako, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak zerbitzu-eginkizunen ezohiko deialdi bateratua egingo du.

Deialdi honetan azaltzen diren lanpostuak Funtzio Publikoen Zuzendaritzatik zerbitzu-zuzendaritzetara bidaliko dira. Sailek berariaz egiaztatu beharko dituzte deialdi horietan hornitu daitezkeen lanpostuak, eta zerrenda bat igorri beharko dute Funtzio Publikoaren Zuzendaritzara, urtarrilaren 17a baino lehen.

DEIALDIEN DATAK

Deialdiak batera ebazteko, honako epe hauek bete behar dira:

Deialdia argitaratzea: urtarrilaren 24a
Eskaerak egiteko epea: urtarrilaren 25etik 31ra
Atzera egiteen amaiera: martxoaren 8a
Esleipenak: martxoaren 25a
Lanpostuaz jabetzea: apirilaren 1a

a) Deialdia

Intranetean/Interneten bi deialdi argitaratuko dira, 2002ko otsailaren 26ko Ebazpenean ezarritako baremoen arabera:

- C1, C2 eta C1/C2 taldeko lanpostuetarako
- C2/ E eta E azpi-taldeetako lanpostuetarako

b) Deitutako plazak

Otsailaren 1ean bete gabe dauden eta indarreko araudiaren arabera zerbitzu-eginkizunetan bete behar diren lanpostuak. Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak beharrezko lanpostuak gordeko ditu lehiaketaren ebazpenaren zioz desplazatu diren eta lanposturik eskuratu ez duten behin-behineko atxikipeneko karrerako funtzionarioak atxikitzeko, eta data horietan lanera itzultzea eskatu duten langileentzako.

Baldin eta, lehiaketan esleipendun izan diren pertsonak lanean hasteko aukeretan aldaketak egiten badituzte edo beste gorabehera batzuk gertatzen badira (aurreikusitako gabe sartutako langileak kasu), eta, beraz, deialdian eskainitako lanposturen bat beteta balego otsailaren 1ean, haren deialdia baliogabetu egingo da.



c) Eskariak

Interesa duten pertsonak parte hartzeko eskatu ahaliko dute intranet/internet bidez eta, bertan, era berean, Langileen Erregistroan erregistratuta dituzten merezimenduak ikusi ahal izango dituzte. Eskarian, eskatu nahi dituzten plazak ordenatu beharko dituzte.

Eskariak egiteko epea urtarrilaren 25etik 31ra izango da, biak barne.

ATZERA EGITEA: EPEMUGA MARTXOAREN 8A

Lehiaketan parte hartzen dutenei, martxoaren 8a baino lehen atzera egin ezean, euren merezimenduen eta lehentasunen arabera esleitzeko zaizkie lanpostuak. Prozedura honetan EZ dago lanpostuak behin-behinean esleitzeko proposamenik.

Karrerako funtzionarioek 12 hilabete itxaron beharko dute beste zerbitzu-eginkizun batzuen deialdian parte hartu ahal izateko, prozeduran atzera egin eta esleitutako lanpostuan hasi ezean.

Bitarteko langileek atzera eginez gero, berriz, behin betiko emango zaie baja izendatuak izan ziren kidegoko lan-poltsatik, salbu eta lehiaketaren ondorioz desplazatuta geratu badira eta kontratu bat lortu badute administrazio honetatik kanpo.

d) Baterako esleipena

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak zerbitzu-eginkizun bakoitza esleitzeko prozesua garatuko du, eta sortutako eta sinatutako dokumentazioa zerbitzu-zuzendaritzetara bidaliko du.

e) Lanpostuaz jabetzea

Esleitutako lanpostuez jabetzeko egintzek 2019ko apirilaren 1etik aurrera izango dituzte ondoreak.

Antolaketaren edo langileen ondorioz, data hori aldatu egin ahaliko da. Edonola ere, zerbitzu-zuzendaritzen eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzako langile esleipendun eta baimendunen artean adostasun batera iritsi beharko da lehendabizi.

OHAR GARRANTZITSUA DEIALDIETAN PARTE HARTZEN DUTENENTZAT

-Langileen **Erregistroan** agertzen diren merezimenduak **alegatutzat** joko dira, **beste administrazio publiko batzuetako esperientzia salbu. Azken hori berariaz alegatu beharko da.**

-Merezimenduren bat ez badago Erregistroan jasota, hautagaiek beren eskarian alegatu beharko dute, eta **Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan egiaztatu.**

-Eskariak izapidetzean atzerapenik egon ez dadin, **prozesu honetan parte hartzeko interesa duten langileek, deialdia argitaratu aurretik, beren datuak erregistroan eguneratu ditzatela komeni da.**

-Horretarako, Jakinaren honako atal hau kontsultatu beharko da, eta ataletan agertzen ez den informazio oro aurkeztu, zerbitzu-eginkizunetan erregistratu eta baloratu dadin:

<http://jakina.ejgv.jaso/informacion/registro-de-personal-actividades-formativas/z10-eduki/es/>

-Parte hartzeko baldintzak betetzen badira, deitzen diren lanpostuetara aurkeztu ahalko dira, bai karrerako funtzionarioak, bai bitartekoak, desplazatuak izan nahiz ez.

-Deialdiko lanpostuaren betekizunez gainera, eskatuko da zerbitzu-eginkizunean edo bitarteko funtzionario gisa ez izendatu izana deialdia argitaratu baino urtebete lehenago.

-Denbora-muga hori ez da aplikatuko karrerako funtzionarioak diren langileen kasuan, zerbitzu-eginkizunetan betetzen duten lanpostutik desplazatuta geratzen badira, titularra lanpostu horretan hastearen edo lanpostu horretara itzultzearen ondorioz.

-Aitzitik, funtzionarioek esleitutako zerbitzu-eginkizunari uko eginez lehiaketan esleitutako lanpostuan hastea aukeratzen badute urtebeteko epean, ezingo dute beste zerbitzu-eskakizunik eskatu uko egiten dioten zerbitzu-eginkizunaren emakidatik urtebete igaro arte.

-Epe bera bete beharko da, baldin eta azken urtean karrerako funtzionarioak beste zerbitzu-eginkizun bati uko egin badio, titulartasunean duen lanpostutik parte hartzen badu ere. Uko egiten duenetik aipatu aldia igaro ez bada, deialdi berrietan ezingo du parte hartu.

-Urtebeteko epea aplikatzen da beti bitarteko funtzionarioen kasuan. Zerbitzu-eginkizun hauetan parte hartu ahal izateko, gutxienez urtebete igaro behar da azken izendapenetik, lehiaketa bidez desplazatu den gorabehera.

-Prozesutik kanpo geratuko dira deialdietan parte hartu dutenak eta deialdi ostean bitarteko funtzionarioaren edo zerbitzu-eginkizunen izendapena jaso dutenak.

-Deialdiak ebazten direnean desplazatuta geratzen diren bitarteko funtzionarioei lanpostuak esleitu ahal izango zaizkie, baldin eta deialdiak argitaratzen diren egunean betetzen badituzte bete beharreko betekizunak.

-Atzera egiteko epea amaituta, lanpostu bat esleitu zaien langileek urtebete itxoin beharko dute beste zerbitzu-eginkizun batean parte hartu ahal izateko.

9. artikulua.- Lehiaketak ebaztearen ondoriozko espedienteak tramitatzea

Azaldutako prozesu horien ebazpena azkartzeko, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak zentralizatu egin behar du egin beharreko tramitazioa. Haiekin lotutako beste



prozedura batzuk hastea ekarriko du horrek, hala nola zerbitzu-eginkizunak baliogabetzea, bitarteko funtzionarioen izendapenak kentzea eta aldatzea.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak jarraian ageri diren dokumentuak sortu behar ditu; hala badagokio, aurretik zerbitzu-zuzendariek edo langileak kudeatzeko zuzendariek sinatuta egongo dira.

1. Bitarteko funtzionarioen izendapenen aldaketak (F016).
2. Zerbitzu-eginkizunen aldaketak (F720).
3. Egoera administratiboa aldatzeko ebazpenak (F021).
4. Zerbitzu-eginkizunak baliogabetzeko ebazpenak (F005).
5. Bitarteko funtzionarioaren izendapena kentzeko ebazpenak (F007).
6. Lana aldi baterako uzteko jakinarazpenak (L137).
7. Bitarteko funtzionarioak izendatzeko ebazpenak (F006).
8. Bitarteko funtzionarioak lanpostuaz jabetzea (F041).
9. Behin-behineko atxikipena egiteko ebazpenak (F153).

a) Zerbitzu-zuzendaritzek edo Langileak Kudeatzeko zuzendaritzek dokumentu horiek guztiak bildu behar dituzte Funtzio Publikoaren Zuzendaritzan.

Orokorrean, interesdunek egun horretan bertan sinatu behar dituzte dokumentu horiek. Hurrenkera alfabetikoari jarraituz ordenatuko dira dokumentu horiek guztiak, eta langileen lanpostu berriei dagozkien sailei helarazi behar zaizkie, horiek lanpostuak jabetzan hartzen dituztenetik aurrera, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren esku dauden datuak erabiliz.

Sail bakoitzean arituko diren langileek beren lanpostuak jabetzan hartzeko sinatze-ekitaldia sail bakoitzeko zerbitzu-zuzendaritzek antolatuko dute, eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari emango diote jarduteko baliatutako irizpideen berri.

b) Langile horiei buruzko ebazpen guztiek hartze-agiria jaso behar dute, eta interesdunek sinatuta eta datatuta egon behar dute.

c) Dokumentazio guztia Funtzio Publikoaren Zuzendaritzara bidali behar da otsailaren 28a baino lehen.

d) Esleipenduna ez baldin bada administrazio honetan lanean ari, ez baldin bada esleitutako lanpostuan lanean hastekoa, eta lanpostua erreserbatzea dakarren egoera batean badago, Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak jakinaraziko du dokumentazioa.

10. artikulua.- Funtzioak egokitzea

Postuz aldatzen diren funtzionario esleipendunei egokitzen dizkieten funtzioak baliogabetu egin behar dira. Sailak funtzio horiei eutsi nahi badie, berriz, horretarako dagokion prozedurari ekin beharko dio.

11. artikulua.- Hartzeko dauden baimenak eta oporrak

a) Lan-baldintzen akordioaren 32.1 eta 32.2 artikuluetan ezarrita dauden eta jatorrizko sailak baimendu dituen baimen guztiak mantenduko dira, 2. puntuko d), f) eta h) letretan azaltzen direnak izan ezik; horiek, destinoko sailak indargabetu ahalko ditu.

b) Oporrak hartzea:

Birkokatzen diren karrerako eta bitarteko funtzionarioek destinoko sailetan bertan hartu ahalko dituzte oporrak. Oporrak hartzeko egunak sail horiek berronetsi beharko dituzte, edo hala badagokio, aldatu.

1997an Osakidetzara transferituriko funtzionarioek destinoko sailean hartuko dituzte oporrak. Ziurtagiri bat aurkeztuko dute, non ordura arte oporretan zein egun hartu duten adieraziko baitute.

Beste administrazio batzuetako funtzionarioen kasuan, oporrei dagokien denbora jatorriko administrazioan hartu beharko da.

12. artikulua.- Norberaren aukerako egunak, hartu gabeak

a) Karrerako funtzionarioak:

Destinoko sailean hartuko dituzte.

b) Bitarteko funtzionarioak:

Baldin eta birkokatzen badira, destinoko sail berrian hartu ahaliko dituzte.

Birkokatzen ez badira, berriz, proportzionalki dagozkien egunak lanpostua utzi aurretik hartu beharko dituzte, bestela galdu egingo dituzte eta.

13. artikulua.- Aparteko ordainsariak

Dagokion soldatarekin batera ordaindu behar dira aparteko ordainsariak, hala badagokio.

14. artikulua.- Zerbitzuaren beharren ondorioz egindako aparteko orduak

a) Birkokatzen diren karrerako funtzionarioak eta bitarteko langileak:

Jatorriko sailean berreskuratu behar dituzte ordu horiek, destinoko sailarekin besterik erabakitzen dutenean izan ezik. Kasu horretan, ordu-kredituen egiaztagiri bat egin behar du jatorriko sailak, funtzionarioek destinoko sailean berreskura ditzaten.

b) Birkokatzen ez diren bitarteko funtzionarioak:

Ohiko lanalditik kanpo berreskuratu behar dituzte zerbitzuaren beharren ondorioz egindako aparteko orduak, bitarteko funtzionarioaren izendapena kendu aurretik.

15. artikulua.- Euskara-eskolak jasotzeko lizentziak

Lan-baldintzak arautzen dituen Akordioaren 8. artikuluaaren arabera, banan-banako prestakuntza-planaren arabera hizkuntza ikastea bermatuta izango dute langileek, beste lanpostu batera lekualdatzeagatik edota beste edozein arrazoiengatik bere lanpostuko ezaugarriak aldatzen badira ere.

Lan-poltsetara desplazatutako bitarteko funtzionarioek, lehendik lanorduetan euskara-ikastaroetara joateko lizentzia bazuten, ikastaro horietara talde berean joaten jarraitzeko aukera izango dute, egoera horretan jarraitzen duten bitartean eta ikastaroa amaitu arte. Inola ere ezin izango dute beste talde edo beste euskaltegi batean jarraitu.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko azaroaren 28a



Izpta.: ANDRES ZEARRETA OTAZUA
FUNTZIO PUBLIKOAREN SAILBURUORDEA

